BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3789

AGINDUA, 2022ko uztailaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan atzerriko hizkuntza indartzeko programarako 2022-2023ko ikasturteko dirulaguntzen deialdia egiten baita.

Hezkuntza Saila ekimen multzo bat bultzatzen ari da derrigorrezko hezkuntzan eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleek atzerriko hizkuntzetan duten konpetentzia hobetu dezaten.

Lanbide Heziketari dagokionez, Hezkuntza Sailak Erasmus + Europako programak finantzatzen parte hartzen du; Lanbide Heziketako praktikak egiteko dira programa horiek, eta, haien bidez, ikasleei aukera ematen zaie praktiken bidezko prestakuntza jasotzeko Europar Batasuneko herrialdeetan. Horretaz gainera, heziketa-moduluak atzerriko hizkuntzetan egitea ere eskaintzen du.

Bestalde, Lanbide Heziketako V. Euskal Planak eleaniztasunaren alde egiten du nabarmen, Lanbide Heziketaren Euskal Sistema nazioartekotzeko estrategiari jarraituz. Estrategia hori lehendik ere garatzen ari zen, eta indartu egin da V. Planarekin. Eleaniztasuna jorratzen da, orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen 28. artikuluan.

Hizkuntzak giltzarri dira ikasleen enplegagarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko, enpresek merkatu global batean jardutea eskatzen dutenez gero.

Azkenik, Europako Batzordeak azpimarratu egiten du oso garrantzitsua dela hizkuntzak ikastea eta herritar guztien hizkuntza-gaitasunak, batik bat prestakuntza jasotzen ari direnen gazteenak, hobetzen lagunduko duten sistemak sendotzea, dimentsio europarra, enplegagarritasuna eta mugikortasuna sendotzen laguntzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA: OINARRI OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen bidez, heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan atzerriko hizkuntza indartzeko programarako 2022-2023ko ikasturteko dirulaguntzen deialdia egiten da.

2. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– 100.000 euro baliatuko dira agindu hau garatzeko.

2.– Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa hau izango da: 50 euro modalitate presentzialean sortu den talde baimendu bakoitzaren irakastorduko. Modalitate ez-presentzialean (online) sortu den talde baimendu bakoitzaren zenbatekoa 4 eurokoa izango da irakastorduko eta ikasleko.

Modalitate mistoan sortu den talde baimendu bakoitzaren gehieneko zenbatekoa 5 eurokoa izango da irakastorduko eta ikasleko.

Deialdiaren xedeetarako, talde baimendua izango da Agindu honetan ezarri diren dirulaguntzak jasotzeko baldintzak edo betekizunak betetzen dituena.

3. artikulua.– Entitate onuradunak.

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzeko baimen ofiziala duten EAEko itunpeko ikastetxe pribatu guztiak. Ikastetxe eskatzaileak beti bete beharko ditu honako hauetan xedatutako baldintzak: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretu bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean 13. artikulua eta haren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarrizko araudia, laguntzon onuradun izateko indarrean dagoen araudia denez.

2.– Ikastetxe onuradunek egunean egon beharko dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituztenak betetzeari dagokionez, eta dirulaguntzak itzultzeko ordainketa-betebeharrei dagokienez.

Hori horrela, 887/2006 Errege Dekretuaren 22.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza-eskabidea aurkeztean, eskatzaileak baimena emango dio dirulaguntza ematen duen organoari, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 18. eta 19. artikuluetan xedatzen direnak egiazta ditzan. Hori bai, eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimena, baina, orduan, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan xedatzen den egiaztagiria aurkeztu beharko du.

Edozein ordainketa egin baino lehen, ikastetxe onuradunek zerga-betebeharrak eta, Gizarte Segurantzari nahiz dirulaguntzak itzultzeko prozedurei loturikoak beteta dituztela egiaztatuko da.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari beste organismo publiko batzuetan egiazta ditzan aurkeztutako agiriak.

3.– Entitate onuradunei dirulaguntza horiek emateko –eta, bidezko denean, ordaintzeko– ezinbestekoa izango da amaiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren organismo autonomoek eta zuzenbide pribatuko ente publikoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiei.

4.– Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzea galarazten duen zigor- edo administrazio-arloko zehapenak dituztenek, ez eta sexu-diskriminazioa dela-eta zigor- edo administrazio-arloko zehapenak dituztenek ere (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrena).

Derrigortasun-kasuetan, berdintasun-plan bat indarrean izatea eta/edo sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri izana egiaztatzea, indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzetan.

Diruz lagunduko den jarduerak ezin izango du sexuan oinarritutako bereizkeriarik eragin.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta jarduerak.

1.– Diruz lagunduko da Lanbide Heziketako heziketa-zikloetako ikasleei atzerriko hizkuntzako ikastaroak ematea, baldin eta 2022-2023ko ikasturtean ikastetxean bertan matrikulatuta badaude. Jarduera

hori irakastorduez kanpo gauzatuko da, eta gutxienez 60 ordu eta gehienez 100 ordu iraungo du irakaskuntza-modalitate presentzialean, ez-presentzialean (online) edo mistoan (ikastaroaren orduen % 20 gutxienez modalitate presentzialean). Ikastaroa modu presentzial, ez-presentzialean (online) edo mistoan eskain daiteke, haietako edozein aldaeratan, eta astean gutxienez 2 ordukoa eta gehienez 8koa izango da, 2022-2023ko ikasturtean.

2.– Ikastetxeko berezko irakasleek edo % 100era arte azpikontratatutakoek eman ditzakete klaseak. Irakasleek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B2 mailaren baliokidea den hizkuntza-gaitasunaren agiria izan beharko dute gutxienez. Ikastetxeko Zuzendaritza arduratuko da betekizun hori betetzen dela bermatzeaz.

3.– Ikastaro horietan hizkuntza ikuspegi praktikotik landuko da, batetik, Lanbide Heziketako tituludunen lan-egoeren eguneroko erabilerei lotuta, eta, bestetik, taldeko ikasleek ikasten duten lanbide-arloei lotutako erabilera teknikoei lotuta. Ahozko trebetasunen komunikazio-gaitasuna landuko da bereziki, elkarrizketa-praktika eta banakako eta taldeko ahozko azalpenak sustatuko dira eta eguneroko lanean multimedia-baliabideak erabiliko dira. Horiek guztiak modalitate presentzialean zein ez-presentzialean (online) egin ahalko dira. Ikastetxeak erabakiko du.

4.– Nominen edo fakturen bidez justifikatu beharreko ikastaroen gastuek bakarrik jaso dezakete laguntza. Era berean, multimedia-materialak ere diruz lagunduko dira, hala nola erabilera-lizentziak eta softwareak, bai irakaskuntza modalitate telematikoan irakastekoak, bai aldiberekotasun-baldintza bete gabe ikastekoak, hau da, ikasleek bakarka ikasteko multimedia-programen lizentziak edo baliabide informatikoak.

Azpikontratazioa Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 68. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da. Enpresa kontratatuak entitate onuradunaren mende soilik egongo dira, eta horrek hartuko du bere gain diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean. Idatziz egingo da entitate onuradunaren eta kontratisten arteko kontratua. Kontratistak, betiere, antzeko arloetan egiaztatutako prestakuntza-esperientzia izan beharko du.

5.– Irakasleak ikastetxekoak badira, atzerriko hizkuntza indartzeko programa emango duen irakasleen soldata-kostua ez du estaliko hezkuntza-itunetatik eratorritako ordainketa eskuordetuak.

6.– Honela kontrolatuko da bertaratzea:

6.1.– Ordu presentzialak: sinaduren kontrol-orrien bidez (3. eranskina).

6.2.– Ordu ez-presentzialak (online): ebidentzia-mota hauek jaso beharko dira:

a) prestakuntza-saio bakoitzaren pantaila-argazkia, parte-hartzaileak bertaratu direla adierazten duena. (Ordu sinkronoak).

b) Saio ez-presentzialen (online) plangintza eta pertsona bakoitzak saio bakoitzean duen bertaratzea jasotzen dituen klase-emailearen adierazpena. (Ordu sinkronoak 4. eranskinean). (Ordu asinkronoak 4.2 eranskinean).

c) Erabilitako plataformak sortzen dituen konexioen erregistro eraginkor eta sinesgarria. Erregistro horrek pertsonak, datak eta konexio-denborak identifikatuko ditu. (*Ordu sinkronoak eta asinkronoak).

*Sinkronoak: ikastaroan parte hartzen dutenek aldi berean gauzatzen dute ikaskuntza-prozesua. Asinkronoetan edozein unetan ematen da.

5. artikulua.– Programan parte har dezaketen ikasleak.

Edozein heziketa-ziklotako itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleek parte har dezakete atzerriko hizkuntza indartzeko programan.

6. artikulua.– Izena ematea, ikasleak hautatzeko metodoa eta eskoletara joatea.

1.– Matrikula boluntario eta doakoa eskainiko da atzerriko hizkuntzako ikastaroetan, eta nahitaezkoa izango da gutxieneko bertaratzea betetzea (orduen % 80), modalitate bakoitzean.

2.– Ikastetxe batek jaso dituen eskabideak eskaini ditzakeen plazak baino gehiago badira, berdintasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioetan oinarrituko da hautaketa-metodoa. Erabiliko den hautaketa-metodoa 2. eranskinean adierazita dago.

7. artikulua.– Taldeak eratzea.

1.– Modalitate presentzialean, hizkuntza bakoitzeko taldean gutxienez 8 ikasle egongo dira, eta gehienez 20. Modalitate ez-presentzialean (online), ez da egongo gutxieneko eta gehieneko ikasle-kopururik.

2.– Hizkuntza bakoitzean taldeak eratuko dira Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan (HEEEB) ezarritako mailak kontuan hartuta: A2, B1.1, B1.2 eta B2. Ikastetxe batek maila berean interesa duten 20 ikasle baino gehiago balitu, maila horretako bi talde egin ahal izango ditu.

8. artikulua.– Hizkuntza-ikastaroen ebaluazioa.

Ikasturte-hasieran, ikasleei proba bat egingo zaie, matrikulatu diren mailaren arabera. Klaseak amaitzean, azken azterketa bat egin beharko dute ikastetxeek.

Era berean, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak emango duen gogobetetasun-inkesta bat egin beharko dute.

9. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Agindu honetan araututako dirulaguntzak bateraezinak dira xede bera duten entitate publikoen edo pribatuen dirulaguntzekin.

10. artikulua.– Datu pertsonalak.

Agindu hau aplikatzean jasotako datu pertsonalak 3/2018 Lege Organikoan (abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa) eta aplika daitezkeen gainerako arauetan xedatutakoaren arabera tratatuko dira.

Datuen babesari buruzko informazioa helbide honetan dago eskuragarri: https://www.euskadi.eus/dbao/0097511

Zure datu pertsonalak tratatu eta izen honetako tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira: Laguntza eta dirulaguntzak Lanbide Heziketako ikastetxeentzat eta entitate laguntzaileentzat.

Arduraduna: teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: laguntza ekonomikoen eskabideak izapidetzea, parte-hartzaileak eta/edo interesdunak identifikatuta. Entitate laguntzaileentzako dirulaguntzak.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: datuak irispidean izan, zuzendu eta ezerezteko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotako bestelako eskubideak ere.

Informazio gehigarria: gure web-orrialdean kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza:

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra.

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

II. KAPITULUA

ESKAERAK ETA EMATEKO PROZEDURA

11. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Ikastetxeko legezko ordezkariari dagokio eskabidea egitea, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariari zuzenduta.

3.– Eskabideak eta haiei gehitutako dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira, ikastetxeak aukeratutakoaren arabera. Era berean, eskabidea egin duen ikastetxeak aukeratutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, hala ezarrita baitago Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan.

12. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskaera egiten duten ikastetxeek agindu honetako eranskinak baino ez dituzte erabiliko dokumentazioa aurkezteko, eta behar bezala beteko dituzte.

a) Eskabide-inprimakia (1. eranskina).

b) Prestakuntza-jardueraren fitxa (2. eranskina) proposatzen den talde bakoitzeko.

13. artikulua.– Aurkeztutako eskabideen akatsak zuzentzea.

Dirulaguntzak lortzeko eskabideak oso-osorik betetzen ez badira, edo eskabidearekin batera aurreko artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkezten ez bada, eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko, edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta, gainera, esango zaio aurrekoa egin ezean, eskabideari uko egiten diola ulertuko dela, Administrazio Publikoen

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluaren araberako ebazpena eman ondoren.

14. artikulua.– Aurkezpen eta izapidetze elektronikoa.

1.– Entitate interesdunek baliabide elektronikoak erabiliko dituzte, eskabideak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak egiteko.

Eskabideak izapidetzeko zehaztapenak eta ereduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuratu ahal izango dira: https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0097511

2.– Izapidetze elektronikoa arautzen dute, batetik, 21/2012 Dekretuak (otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa) eta, bestetik, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariak 2006ko otsailaren 9an emandako Ebazpenak, hain zuzen ere, Informatika eta E-Administraziorako Plataforma Teknologikoa -Platea- onartzen duenak.

3.– Eskabidea egin ondorengo izapideak, baita jakinarazpen eta justifikazioak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» gunearen bitartez egingo dira: https://www.euskadi.eus/nirekarpeta

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartuta dauden identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak

5.– Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkariak inskribatuta egon beharko du Eusko Jaurlaritzako Ahalordeen erregistroa elektronikoan, helbide honetan: https://www.euskadi.eus/ordezkariak

6.– Hirugarrenen alta bide elektronikoz izapidetu ahal izango da (hala egin beharko dute izapidetze elektronikoa erabiltzera behartuta daudenek), egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez, helbide honetan: https://www.euskadi.eus/hirugarrenak

15. artikulua.– Dirulaguntzak kudeatzen dituen organoa.

Hezkuntza Saileko Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria izango da agindu honetan araututako dirulaguntzen organo kudeatzailea.

16. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

1.– Eman beharreko guztizko zenbatekoak agindu honen 2.1 artikuluan aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura gainditzen badu, honela jokatuko da:

a) Ikastetxe eskatzaile bakoitzari talde bat emango zaio. Ikastetxeak talde bat baino gehiago eskatu badu, guztira ordu-kopuru txikieneko iraupena duena aukeratuko da.

b) Hala ere, deialdiko aurrekontu-zuzkidura gainditzen bada, talde bat emango da ikastetxe bakoitzeko, 60 ordu gutxienez guztientzat.

c) Aurrekontuaren zenbatekoa ikastetxe eskatzaile bakoitzeko 60 orduko talde bat betetzeko nahikoa ez bada oraindik, irakastordu bakoitzeko prezioa murriztuko da, deialdiaren zuzkidurara egokitu arte.

d) Aurreko a) apartatuan aurreikusitakoaren arabera ikastetxe eskatzaile bakoitzari talde bat eman ondoren talde gehiago finantzatu ahal badira, eskolak ematea aurreikusi duten ikasleen

guztizko kopuruaren arabera ordenatuko dira ikastetxeak, handienetik txikienera, eta beste talde bat esleituko zaie ikastetxeei, ikastetxe bakoitzeko bigarren taldea agortu arte.

e) Aurreko d) apartatua aplikatu ondoren aurrekontua geratzen bada erabilgarri, apartatu honetan aurreikusitakoaren arabera jokatuko da, zuzkidura agortu arte.

17. artikulua.– Prozedura ebaztea.

1.– Aurkeztu diren eskabideak prozedura bakar baten bidez izapidetuko dira. Hori ebazteko ardura izango du Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariak.

2.– Ebazpen hori argitara emango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan (https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa), eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu jakinarazpen-ondorioak. Ebazpenetan honako hauek ere jasoko dira: emandako dirulaguntzen zerrenda, eta baztertu eta prozeduratik kanpo geratu direnen zerrenda; emandakoen kasuan, zenbatekoak adierazi beharko dira, eta, baztertu eta prozeduratik kanpo geratu direnen kasuan, horretarako arrazoiak zeintzuk izan diren.

3.– Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpen-abisuak bidaltzea, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara mezuak bidaliz. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen eginaren ondoriorik izango.

4.– Ebazteko eta ebatzitakoa ikastetxe interesdun guztiei jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Adierazitako epea igarota, aipatutako jakinarazpena egin ez bada, interesdunek eskabidea ezetsitzat jo ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

5.– Prozeduraren ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lanbide Heziketako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

6.– Eskabidearen osteko izapideak bide elektronikoz egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» atalaren bidez: https://www.euskadi.eus/nirekarpeta

III. KAPITULUA:

ORDAINKETA, ONURADUNEN BETEBEHARRAK ETA JARRAIPENA

18. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntza bi epetan ordainduko da. Lehena, emandako laguntza osoaren % 80, laguntza onartu ondoren ordainduko da, 19.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Dirulaguntzaren zenbatekoaren gainerako % 20a hizkuntza-ikastaroak amaitu eta ikastetxeko zuzendaritzak behar bezala egin direla egiaztatu ondoren ordainduko da, justifikazioa 20. artikuluan zehazten diren epe eta baldintzetan aurkezten bada.

Hirugarrenen alta bide elektronikoz izapidetu ahal izango da (hala egin beharko dute izapidetze elektronikoa erabiltzera behartuta daudenek), egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez, helbide honetan: https:/www.euskadi.eus/hirugarrenak

19. artikulua.– Ikastetxe onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun diren ikastetxeek honako betebehar hauek dituzte:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, entitate onuradunek, esleitzeko erabakia jakinarazi eta hurrengo hamabost egun naturaleko epean berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

2.– 2022-2023ko ikasturterako Ikastetxeko Urteko Planean sartzea diruz lagundutako hezike-ta-jarduerak.

3.– Agindu honen 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9. eta 10. artikuluetako baldintzak betetzen direla ikuskatzea.

4.– Emandako dirulaguntza justifikatzea 20. artikuluan jasotakoaren arabera.

5.– Gutxienez 5 urtean artxibatzea 4.6 artikuluan aipatutako dokumentuak eta gastuen jato-rrizko frogagiriak, erakunde eskudunek egiaztatze- eta kontrol-lanak egin ahal izan ditzaten.

6.– Dirulaguntza, eman den xederako erabiltzea.

7.– Ikastaroetako saio bakoitza amaitzean, bertaratze metatuko balantze partziala egitea era-baki zuzenak hartu ahal izateko, deialdiaren 22. artikuluak xedatzen duenaren arabera –artikulu hori dirulaguntzaren baldintzak aldatzeari buruzkoa da–.

8.– Ikastaro osoa egitea dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko kontuan hartu den talde bakoi-tzeko irakastorduen kopuruarekin eta banaketarekin.

9.– Bertaratzea kontrolatzea 4.6 artikuluan aipatutako dokumentuen bidez. Ikasleak bertaratu direla egiaztatuko dute, eta ikastetxean gordeko dira, egiaztapenik egin behar denerako.

10.– Ikasle bat eskolen % 20ra edo gehiagora joan ez bada justifikatu gabe, ikastetxeko zuzen-dariak, tutoreak hala proposatuta, Eusko Jaurlaritza jakinaren gainean jarriko du https://www.euskadi.eus/nire-karpeta helbidearen bidez.

11.– Dirulaguntzaren zenbatekoa aldatzea eskatzea 22. artikuluan zehazten diren kasuetan.

12.– Dirulaguntza itzultzea 23. artikuluan zehazten diren kasuetan.

13.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluko gainerako betebehar guztiak betetzea; zehazki, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea haiek eskatzen duten edozein informazio, dirulaguntzen xedea fiskalizatu ahal izan dezaten.

14.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako gainerako betekizunak betetzea, Agindu honen xedeko programen finantzaketaren izaera publi-koari publikotasun egokia ematearena barne. Horrenbestez, ikastetxe onuradunak ikasleei eta familiei jakinaraziko die programa diruz laguntzen duela Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak.

15.– Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari dirulaguntza ematean kontuan izan-dako edozein baldintzaren aldaketa jakinarazteko konpromisoa hartzea.

20. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

1.– Ikastetxe onuradunek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte, 2023ko ekainaren 30a baino lehen, https://www.euskadi.eus/nirekarpeta helbidearen bidez, DLOren 30. artikuluari jarraikiz:

a) Parte-hartzeari eta hasierako eta amaierako azterketaren emaitzei buruzko akta (5. eranskina).

b) Memoria ekonomikoa, 6. eranskineko inprimakiaren araberakoa.

c) Ikastaroak eman dituzten pertsonen nominen kopiak, bai eta eskatutako eta dirulaguntza-deialdi honen ebazpenaren bidez baimendutako gastuen fakturen kopiak ere. Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak «laginketa-teknikak» erabiliko ditu dirulaguntzaren aplikazio egokiaren ebidentzia nahikoa emango duten frogagiriak egiaztatzeko. Horretarako, onuradunari eska diezaioke aurkeztu ez dituen jatorrizko frogagiriak aurkezteko.

d) Baldin eta zenbait gastu lotuta badaude ikastaroa modalitate telematikoan emateareKin eta multimedia-lizentziekin, gastuok egiaztatzeko fakturen kopiak aurkeztu beharko dira (talde bakoitzeko onartutako kostuaren % 20, gehienez).

2.– Artikulu honen aurreko apartatuan adierazitako justifikazio-aldia baino lehen ordaindu diren nominak edo fakturak bakarrik onartuko dira egindako gastu gisa.

3.– Eskabidearen osteko izapideak, justifikazioak barne, bide elektronikoz egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» atalaren bidez: https//www.euskadi.eus/nirekarpeta

21. artikulua.– Jarraipena.

1.– Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak jarraipena egingo die diruz lagundutako heziketa-jarduerei, Hezkuntzako Ikuskaritzaren bidez, haiek egiten direla bermatzeko.

2.– Baldin eta, ikasturtean zehar, gorabeheraren bat gertatzen bada diruz lagundutako heziketa-jardueren garapenean, kasuan kasuko Ikuskaritzako Buruzagitzak egoki irizten dion txostena bidaliko dio Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari, Agindu hau betearazteko neurriak har ditzan.

22. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19.4 artikuluarekin eta 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Erregelamenduaren 64. artikuluarekin bat, eman den dirulaguntzaren zenbatekoa aldatuko da aldi berean beste ekarpen batzuk jaso badira, bai eta kasu hauetan ere:

a) Modalitate presentzialerako:

Orduen % 80ko gutxieneko bertaratzea gainditu duten ikasleen kopurua talde bakoitzeko 6 ikasle baino gutxiagokoa eta 3 ikasle baino gehiagokoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa hainbanatuko da, bertaratze-ehunekoarekin bat etor dadin.

Saio bakoitza amaitzean, bertaratzearen balantze partziala egin beharko da. Ikastaroaren ordu-kopuru osoaren % 80ko gutxieneko bertaratzea gainditu ahal izango duten ikasleen kopurua 3 edo gutxiago bada saioetako batean, ikastetxeko zuzendariak gainerako orduak emateari uzteko aginduko du berehala, eta horren berri eman beharko dio Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari, https://www.euskadi.eus/nirekarpeta web-orriaren bidez. Kasu horretan, gehienez, ordura arte emandako orduak ordainduko dira.

Modalitate ez-presentzialerako (online) edo mistorako:

Ikasleren batek ezin izan badu % 80ko gutxieneko bertaratzea bete, ikastetxeko zuzendariak Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio https://www.euskadi.eus/nirekarpeta web-orriaren bidez. Kasu horietan, ordura arte emandako irakastorduak baino ez dira ordainduko.

b) Irakastorduak ez badira 19.8 artikuluan ezarritakoak adina, dirulaguntzaren zenbatekoa gutxitu egingo da benetan eman diren irakastorduen arabera, betiere 4.1 artikuluan talde bakoitzarentzat ezarritako gutxieneko 60 irakastorduak eman badira.

2.– Horretarako, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariak aldaketa-ebazpena emango du; eman diren zenbatekoak gutxituko dira, eta entitate onuradunak sobera jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, betiere emandako gutxieneko 60 orduen muga errespetatuta.

Horretarako, kontrola egin beharko da 4.6 artikuluan aipatutako dokumentuen bidez. Ikasleak bertaratu direla egiaztatuko dute, eta ikastetxean gordeko dira, egiaztapenak egin behar direnerako. Ikasle bat eskolen % 20ra edo gehiagora joan ez bada, justifikatu gabe, ikastetxeko zuzendariak, tutoreak hala proposatuta, Eusko Jaurlaritza jakinaren gainean jarriko du https://www.euskadi.eus/nirekarpeta webgunearen bidez.

23. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketa-prozedura.

1.– Dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala egokituz gero, jasotako zenbatekoa gehi dagokion interesa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaio hauetako bat gertatuz gero:

a) Jarduerak irauten duen bitartean ez betetzea bertaratzearen edo emandako irakastorduen gutxieneko ehunekoak; horrelakoetan, eman den dirulaguntzaren zenbatekoa aldatu ahalko da, 22. artikuluaren arabera. Horretarako, onuradunari entzunaldia eskaini ondoren, diruz lagundutako jarduketa bete gabetzat hartuko da, eta emandako dirulaguntza egokituko, aipatutako puntuan ezarritakoari jarraikiz.

b) Agindu honetan eta hura garatzen duten ebazpenetan xedatutako edozein betebehar edo baldintza ez betetzea.

c) Ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuen konturako dirulaguntzen onuradunen edozein betebehar. Betebehar horiek azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan jasota daude.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako itzulketa-kausaren bat gertatzea.

e) Aldi berean entitate publiko edo pribatuen beste edozein dirulaguntza jaso izana.

2.– Jasotako zenbatekoak itzultzeko eta berandutze-interesa eskatzeko, honako xedapen hauei jarraituko zaie: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluari (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako testu bategina) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuko II. tituluari (698/1991 Dekretua, EAEko Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeen eta horiek itzultzearen erregimen orokorra arautzen duena).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu hau administrazio publikoen dirulaguntzak arautzen dituzten printzipioei jarraikiz ebatziko da –publikotasunaren, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioak–, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean ezarritako baldintzetan, zeina azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu baitzuen, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan zehaztutako oinarrizko araudiaren arabera, eta laguntzei eta

dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenekin bat etorriz; horrez gain, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira, agindu honetan ezarritako irizpideen arabera.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari, bi hilabeteko epean. Bi epeok agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 26a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

ESKABIDEA

(*) Nahitaezko eremuak

Eskatzailea*

Titularra ● Ordezkaria ●

Datu pertsonalak

Titularra

Entitatearen izena *_____ Telefonoa ____

Identifikazio-dokumentua *____ Zenbakia *_____

Entitate eskatzailearen datu fiskalak dauden lurraldea/probintzia * _____
_____

Ordezkaria

Izena / Entitatearen izena *_____ Telefonoa _____

Lehen abizena _____ Bigarren abizena _____

Identifikazio-dokumentua *_____ Zenbakia *_____

Sexua

Gizonezkoa ● Emakumezkoa ● Ez-bitarra ●

Jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako bidea *

●Posta

Helbidea *_____ Zk. _____ Solairua _____Letra

PK * _____ Udalerria * _____ Probintzia * _____

Herrialdea *

●Elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza*

● Euskara ● Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Doako abisu-sistema bat erabil dezakezu, helbide elektronikoaren bidezkoa edo SMS bidezkoa, jakinarazpenen edo komunikazioren bat bidaltzen dizuten bakoitzean horren berri ematen dizuna.

Helbide elektroniko edo mugikorreko zenbaki bat baino gehiago eman nahi izanez gero, puntu eta

komaren [;] bidez bereizi.

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak (39/2015 Legearen 69. artikuluko eskakizunen arabera)

Bateraezintasun-adierazpenak

● Adierazten dut entitate eskatzailea ez dela xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publikoetatik edo entitate pribatuetatik.

● Adierazten dut atzerriko hizkuntza indartzeko programa emango duen irakasleen soldata-kostua ez duela estaliko hezkuntza-itunetatik eratorritako ordainketa eskuordetuak.

Berariazko adierazpenak

Hau adierazten dut entitate eskatzaileari dagokionez:

● Ezagutzen ditu Lanbide Heziketako heziketa-zikloak emateko baimenduta dauden ikastetxeetan atzerriko hizkuntza indartzeko dirulaguntzen deialdiaren baldintzak.

● Konpromisoa hartzen du Hezkuntza Sailaren Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari jakinarazteko dirulaguntza emateko eskatzen eta kontuan hartzen den baldintzaren bati eragiten dion egoera-aldaketa oro.

● Konpromisoa hartzen du bertaratzearen kontrola egiteko erabilitako dokumentu guztiak –prozesua arautzen duen aginduaren 4. artikuluaren 6. betebeharrean adierazitakoak– ikastetxean 5 urtez gordetzeko eta mantentzeko, eta Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzaren edo zuzendaritza horren bidez eska ditzaketen organoen esku jartzeko, deialdiaren 19. artikuluko 5. betebeharrak arautzen duenaren arabera.

● Badaki erantzukizun penal, zibil edo administratiboa izan dezakeela zehaztasunik ezagatik, faltsukeriagatik edo omisioagatik

● Badaki Administrazioak ahalmena duela egiaztapenak, kontrolak eta ikuskapenak egiteko

Beste adierazpen batzuk

Hau adierazten dut entitate eskatzaileari dagokionez:

● Ez dauka dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzea galarazten dion zigor- edo administrazio-arloko zehapenik.

● Ez dago ezgaituta zigor- edo administrazio-arloan sexu-bereizkeriagatik (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrena).

● Ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean.

● Bete egiten ditu laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua).

● Egunean ditu indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak,

bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere. Emandako dirulaguntzak likidatu arte iraun behar dute eskakizun biek; beraz, betetzen direla egiaztatuko da, bai emateko orduan bai ordaintzeko orduan.

● Datu pertsonalen tratamenduaren jakitun da, deialdiaren 10. artikuluko xedapenean oinarrituta.

● Eskabide honetan eta eskabidearekin batera doazen dokumentuetan jasotako datuak benetakoak dira.

[1] Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrena betez.

Hizkuntza-ziurtagiria betetzeari buruzko adierazpena

Adierazten dut prestakuntza emango duen pertsonak:

- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B2 mailaren baliokidea den hizkuntza-gaitasunaren agiria duela.

Lehenago aurkeztutako agiriak

Baimena ematen dut dokumentu hauek kontsultatzeko:

Dokumentuaren izena	Zein egunetan eman den	Zein organotan eman den

Baimenak

Instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzekoak

Araudi aplikagarriarekin bat etorriz, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko (GSDO) betebeharrak egunean izatearen datuak.
- Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)

☐ EZ DUT ONARTZEN prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. art.).

Oharra: onarpenik eman ezean, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.

(Lekua) _____, _____(a) (data)

(Ordezkariaren sinadura)

PRESTAKUNTZA-JARDUEREN ZERRENDA

Ikastetxearen izen ofiziala:

Ikastetxearen kodea:

Lurraldea:

Zerrendatu prestakuntza-ikastaroak lehentasunen araberako hurrenkeran eta haien ezaugarriak:

Talde-zk.	Ikastaroa	Hizkuntza:	Ikasleak				Modalitatea			Orduak			Aurrekontua	Entitatea edo emailea
			E	G	EB	Guztira	Pre	Ez-pre	Mistoa	Pre	Ez-pre	Guzt		
1														
2														
3														
4														
5														
6														
7														
8														
		Guztira:												

(E) Emakumezkoa – (G) Gizonezkoa– (EB) Ez-bitarra

(Pre) Presentziala – (Ez Pre) Ez-presentziala (online)

II. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN FITXA

(TALDE BAKOITZEKO FITXA BAT BETEKO DA)

Ikastetxearen kodea: Ikastetxearen izena:
Lurraldea:
Ikastetxean deialdia kudeatzen duen pertsonaren izena:

Talde-zk.: Hizkuntza: Maila:
Irakaslea:
Izena emandako ikasleen kopurua: Emakume-kopurua: Gizon-kopurua:
Ez-bitarren kopurua:
Ikastaroaren egutegia: Hasiera-eguna: Amaiera-eguna:
Ikastaroa zenbat egunetan emango den, guztira:
Egunean emateko ordu-kop.:
Ikastaroaren modalitatea: □ Presentziala □ Ez-presentziala □ Mistoa
Ikastaroaren guztizko ordu-kopurua: *orduak (gutxienez 60 ordu – gehienez 100 ordu)*
Horietatik ez-presentzialak: _____

Azpikontratatu bada:
Sozietatearen izena: _____
IFK:_____

Ikasleen lanbide-arloei egokitutako edukiak:

Ikasle-irakasle metodologia:

Eskatzaileak hautatzeko erabilitako metodoa:

PARTE-HARTZAILEEN ZERRENDA

	NANa	Izen-abizenak	Ikasten duen heziketa-zikloa eta maila	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Ez-bitarra
1						
2						
3						
4						
5						
6						
7						
8						
9						
10						
11						
12						
13						
14						
15						
16						
17						
18						
19						
20						

III. ERANSKINA

BERTARATZE PRESENTZIALA KONTROLATZEKO ORRIA

(TALDE BAKOITZEKO ETA EGUNEKO FITXA BAT BETEKO DA)

Ikastetxea:
Data:
Hizkuntza:
Maila:
Talde-zk.:
Irakaslea:

	EGUNEKO BERTARATZEAREN KONTROLA
	EGUNEKO ORDU-KOP.:

ZK.	NAN	Abizenak	Izena	Sinadura
01				
02				
03				
04				
05				
06				
07				
08				
09				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				
17				
18				
19				
20				
21				
22				

IV. ERANSKINA

ORDU EZ-PRESENTZIAL SINKRONOEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

KONTUZ! Bakarrik bete prestakuntza-ekintzak ordu ez-presentzialak baditu. Ordu ez-presentzialen kopuru osoa jasotzen duen adierazpen bakarra.

Ikastetxea:

Hizkuntza:

Maila:

Talde-zk.:

Ikastaroko irakaslea:

- Egiaztatzen dut honako hauek direla prestakuntza-ekintzaren ordu ez-presentzialak:

Saio-zenbakia	Data	Orduak
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		
16		
17		
18		
19		
20		
21		
22		
23		
24		
25		

- Eta egiaztatzen dut hurrengo orriko taulan ageri diren ikasleak saio ez-presentzialetara bertaratu direla:

_____, _____(a)

(Lekua) (Eguna)

IRAKASLEA

(SINADURA)

	NANa	IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK	PRESTAKUNTZA-SAIOAREN DATA Prestakuntza-saioaren zenbakia (markatu bertaratzea)
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			
11			
12			
13			
14			
15			
16			
17			
18			
19			
20			
21			
22			
23			
24			

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

4-BIS ERANSKINA
ORDU ASINKRONOEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

KONTUZ! Bakarrik bete prestakuntza-ekintzak ordu asinkronoak baditu.
Ordu asinkronoen kopuru osoa jasotzen duen adierazpen bakarra.

Ikastetxearen kodea: | | | | | | |

Ikastetxearen izen ofiziala: Lurraldea: _____

Hizkuntza indartzeko ikastaroa: Hizkuntza: _____ **Maila** _____

Ikastaroaren kudeatzailea: _____

Ikastaroaren hasiera-data: _____ **staroaren amaiera-** _____

Adierazten dut:
Ikastetxeak antolatutako hizkuntza indartzeko ikastaroaren edukiaren barruan, bertaratutako ikasleek ezarritako lan pertsonala egin dute.

Ikastaroaren guztizko ordu-kopurua: Ordu asinkronoak: % asinkronoak: 0,00

	NANa	Izen-abizenak	Ordu asinkrono	Gogobetegarria (BAI /
1				

+ Beste lerro bat

_____,
_____(a)
(Lekua) (Eguna)

KOORDINATZAILEA (sinadura)

V. ERANSKINA

PARTE-HARTZEAREN ETA EMAITZEN AKTA

(TALDE BAKOITZEKO AKTA BAT BETEKO DA)

Ikastetxearen kodea: _____
Ikastetxearen izena: _____

Talde-zk.:_____ Ikastaroaren maila: _____
Hizkuntza: _____
Ikastaroa eman duen enpresaren/irakaslearen izena:
_____

Ikastaroaren modalitatea: □ Presentziala □ Ez-presentziala □ Mistoa
Ikastaroaren iraupena (emandako orduak): _____
Horietatik ez-presentzialak: _____
Irakaslea: _____
Izena emandako ikasleen kopurua: _____ Emakumezkoak: _____ Gizonezkoak: _____ Ez-bitarrak: _____
Ikastaroaren egutegia: Hasiera-eguna: _____ Amaiera-eguna: _____
Ikastaroa zenbat egunetan eman den, guztira: _____
Egun bakoitzeko zenbat ordu eman den, guztira: _____
Gutxienez % 80ko bertaratzea izan duten ikasleen kopurua:

	Izen-abizenak	*> % 80ko bertaratzea*		*Maila-proben emaitzak*	
		BAI	*EZ*	*Hasierakoa (0-10)*	*Amaierakoa (0-10)*
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					

Ziurtatzen dut ikastaroa aurreikusitako helburuen arabera gauzatu dela. Halaber, ziurtatzen dut dokumentu honetako bertaratzeak eta emaitzak deialdiaren 4.6 artikuluan aipatutako dokumentuetan oinarrituta daudela. Ikastetxeak 5 urtez gordeko ditu eranskin horiek etorkizunean egin daitezkeen egiaztapenetarako, Aginduaren 19.5 artikuluaren arabera.

Lekua eta eguna: _____

Zuzendariaren sinadura

VI. ERANSKINA

MEMORIA EKONOMIKOA

(PROGRAMAN PARTE HARTU DUEN TALDE BAKOITZEKO FITXA BAT BETEKO DA)

Ikastetxearen kodea:	Ikastetxearen izen ofiziala:
Lurraldea:	
Ikastetxean deialdia kudeatzen duen pertsonaren izena:	

1.– Nominen zerrenda

	Irakaslea	Soldataren kostua, orduko	Ikastaroen hasiera- eta amaiera-datak	Aurkeztutako nomina-kopurua	Ikastaroan emandako ordu-kopurua	Kostu egozgarria (€)
1						
2						
3						
4						
5						
Langile-gastuak, guztira						

2.– Atxikitako fakturen zerrenda

	Zenbakia	Data	Jaulkitzailea	Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
1.a					
2.a					
3.a					
Tresna eta zerbitzu informatikoen gastuak, guztira					

Jardueraren gastuen zerrenda justifikatzerakoan, jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua zehaztu beharko da, honako hauek adierazita: hartzekoduna eta kontzeptua, zenbatekoa, jaulkipen-eguna eta ordainketa-eguna, aurrekontuarekiko desbideratzeak, eta diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jasotako beste zenbait diru-sarreraren xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria.

ATXIKITAKO FAKTUREN EGIAZKOTASUNARI BURUZKO ADIERAZPENA

☐ Adierazten dut ezen, erantsitako fakturak, ordainagiriak edo ziurtagiriak –izan formatu elektronikokoak, paper-formatukoak edo, hala badagokio, jatorrizkoen kopia konpultsatuak–, aurreikusitako xedea betetzearen ondorioz sortu direla (zehaztu beharko da zein den dirulaguntzaren xede zehatza) _____ eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpenaren bidez finantzatu direla. Jatorrizkoak eskuragarri daude, egokitzat jotzen denean ikuskatzeko.

3.– Proiektuaren balantze ekonomikoa

Gastuak (justifikatutako gastuak taldeen arabera esleitzea=

Talde-zk.	Hizkuntza	Maila	Orduak	Hasiera- eta amaiera-egunak	Ordutegia	Astean zein egunetan eman den	Zenbatekoa (€)

Talde-zk.	Hizkuntza	Maila	Orduak	Hasiera- eta amaiera-egunak	Ordutegia	Astean zein egunetan eman den	Zenbatekoa (€)
Behin betiko gastuak, guztira							

BEHIN BETIKO DIRU-SARRERAK		
Finantzaketa propioa		
Finantzaketa publikoa	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren dirulaguntza	
	Beste batzuk	
	Finantzaketa publikoa, guztira	
Entitate pribatuen dirulaguntzak		
Behin betiko diru-sarrerak, guztira		

_____, _____(a)

(Lekua) (Eguna)

(Ikastetxearen zigilua eta zuzendariaren sinadura)